

III. deialdia luzatzeko ebazpena
Iberdrola Fundazioa – Bilboko Arte Ederren Museoa Beka 2016-2017

Iberdrola Fundazioa – Bilboko Arte Ederren Museoa Bekaren 2016-2017ko programaren III. deialdiaren oinarriak Espainiako Iberdrola Fundazioaren eta Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren esparruan sinatu ziren; bada, horietan aurreikusita dauden ahalmenak baliatuz eta jarraian adierazitako egitatezko aurrekariak kontuan hartuta,

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2016ko maiatzaren 13an ireki zen Iberdrola Fundazioa – Bilboko Arte Ederren Museoa Beka-programaren 2016-2017ko III. deialdia. Lehiaketa horretarako 65 proposamen jaso ziren, eta berorien hautagaitzak baloratu ziren oinarrietan ezarri zen hautapen-prozesuaren arabera.

BIGARRENA.- 2016ko ekainaren 27an, behin prozesuko fase guztiak amaituta, azterketa- eta balorazio-batzordeak, bekaren adjudikazioduna hautatzeko eratu zena, honako hau ebatzi zuen: beka ematea Sandra Rodríguez de Paula andreaki (NAN: 7250...-F), titular gisa.

HIRUGARRENA.- Iberdrola Fundazioa – Bilboko Arte Ederren Museoa Bekaren 2016-2017ko programaren III. deialdiaren oinarrietan aurreikusitako ahamenak erabiliz, Sandra Rodríguez de Paula andreak (BEKADUNA hemendik aurrera) eta M.^a Jose Ruíz-Ozaíta andreak, Zaintzeko eta Zaharbertzeko sailburua eta aurrekoaren tutorea (TUTOREA hemendik aurrera), epea luzatzeko eskaera aurkeztu dute horretarako ezarri den epean eta moduan. Halaber, harekin batera aurkeztu dute TUTOREAK horren alde sinatutako txosten bat, adierazitako eskaera arautzen duen araudia betez.

Museo honetako Zuzendaritzak honako hau

EBATZI DU

LEHENENGOA.- BEKADUNAK egindako lan ona egiaztatu ondoren, espedienteko TUTOREAREN txostenean jasota dagoen bezala, eta beken babeslea den Iberdrola Fundazioari jakinarazi ostean, ERABAKI DA beka ezarritako aldi berean luzatzea (hamar hilabetez).

BIGARRENA.- Ebazpen horren ondorioz, ezeztatu da Iberdrola Fundazioa – Bilboko Arte Ederren Museoa Bekaren IV. deialdia.

HIRUGARRENA.- Luzapena 2017ko irailaren 1ean hasi eta 2018ko ekainaren 30ean amaituko da. Luzapen hori bakarra da eta ezingo da berritu.

LAUGARRENA.- Luzapenaren baldintzak programaren III. deialdiaren oinarrietan ezarritakoak izango dira, lan-egutegiari eta jaiegunei dagozkienak izan ezik. Azkeneko horiei dagokienez, eguneratuko dira.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau argitaratuko da interesdunen ondorioetarako; hain zuzen ere, Iberdrola Fundazioaren webgunean, www.fundacioniberdrola.org, eta Bilboko Arte Ederren Museoarenean, www.museobilbao.com

Bilbao, 2017ko ekainaren 26a



Miguel Zugaza
Director



